



Gernika 1937

...eta eguna gau bilakatu zen

Biek, Josefina Odriozola eta Luis Iriondok, hamalauna urte zituzten Gernika bonbardatu zutenean. Apirilaren 26 hartatik urteak igaro badira ere, 70, oso gogoan dute batek zein besteak egun hura. Ez dute berehalakoan ahantziko. Inoiz

EZPALA ezpala@aldaketa16.info

ARGAZKIAK: Gernikako Bonbardeaketari buruzko Dokumentazio Zentrua. Bakearen Museoa Fundazioa

Egun garbia argitu zuen. Azoka eguna zen. Nahiz eta gerra izan eta genero gutxiago egon, ez zen jende faltarik. Batailoiez gain Gipuzkoatik, batik bat,

ihesian joandako herritarrek ere bizi ziren Gernikan. "Aita eibartarra zenez, hango izeba eta lehengusuak etxean hartu genituen" dio Luis Iriondok.

Bonbardaketak ez zuen Luis etxean harrapatu Banco Bilbaoko bulegoan baizik. "Ni herriko institutura joaten nintzen baina gerra hasi zenean irakasle ia guztiak fran-

kisten esku erori ziren herri eta hirietan harrapatu zituztenez, klaseak bertan behera geratu ziren. Beraz, nire amak Banco Bilbaoko sukurtsaleko zuzendariarekin hitz egin eta enkarguak egiteko... hartu ninduten".

Ohi bezala, bankura joan zen Luis. Gernika inguruko mendi ton-torretan hegazkinak azaltzen zire-

nean soldaduek banderak astindu orduko pertsona batek kanpaiak jotzen zituen jendea aterpeetara joan zedin.

Gernikarrak kanpai hotsak entzun zituenean banketxeke langile bati, "goizeko ordu hauetan zergatik jotzen dituzte kanpaiak?" galde- tu orduko, "hori alarma da" esan zion, eta aterpetzera joan ziren. "Harritu ninduen nahiko denbora baitzen ez genuela herrian bonbardaketarik izan".

Luissekin batera zegoen gizona ikaratu eta Pasillekuen zeuden babesleku moduko batera joan ziren. Segituan bete zen jendez.

"Ni ere barruraino sartu nintzen. Jendetza bildu ginen; leku gutxi eta haizea ere beste hainbeste. Ezin zen behar bezala arnas hartu. Ikaratu egin nintzen. 'Gure gainean bonba bat erortzen bada ez gara bizirik aterako' pentsatu nuen nire artean".

Bonbardaketa hasi eta hama- bost bat minuturen bueltan, hegazkinak ospa egin zuten, irten egin zen Luis eterpetik. "Baina segituan itzuli zinen hegazkinak" gogor- tzen du. "Aurreko aldia hain gaiz- ki pasa nuenez, jende guztia sartu arte itxaron eta aterpearen atarian geratu nintzen. Halako batean gu- dari bat azaldu zen eta 'honek zen-



Herritik ihesean gindoazela, Kosnoaga menditik, guk Haize-errota deitzen diogu, Gernika erretzen ikusi genuen

bat iraugo du?' galdetu nion. Ez dakit zer erantzun zidan baina bonbardaketa oso luzea egin zitzaidan; hiru bat ordu inguru iraun zituen".

Triskantza

Bonba zarata amaitu zenean erre- alitate gordinarekin topo egin zuten bizirik irten ziren herritarrak. "Nik etxe bakan batzuk apurtuta egongo zirela uste nuen baina herri guztia txikituta eta lainotua zegoen. Sua- ren kea zen".

Bonbardaketaren ondorioz Lui- sek lagun bat edo beste galdu zi- tuen: "gogoan dut, bezperan, bate- kin, Cipriano Arrienekin egon nin- tzela...".

Gernika su-garren gatibu zenez, ahalik eta arinen herritik irtetea de- liberatu zuen. "Eloi Perez lagunare- kin topo egin eta mendi aldera egin genuen beste hainbatek bezala. Gernikan, orduan, milaka gutxi ba- tzuk bizi ginenez 'ikusi al duzu ni- re ama?', 'Eta aita?'. Gure senitar- tekoek galdetzen hasi ginen bateri eta besteari. Herritik ihesean gin- doazela, Kosnoaga menditik, guk Haize-errota deitzen diogu, Gerni- ka erretzen ikusi genuen".



Bonbardaketatik orduak igaro ahala eguna are belztu zen, gaua egiteraino. Bi lagunek 'zer egingo dugu?' galdetu orduko Lumora joatea erabaki zuten; inork lo egiteko lekuren bat emango zien esperantzaz.

"Heldu orduko etxe batean atea zabalik eta argia ikusi genuen. Etxearen jabeak, 'Elbira, altzari-dendakoaren semea zara' esan zidan. Nik, baietz erantzun nion. Esne apur bat luzatu ziguten, baita zaku batzuk lasto gainean, animalien ondoan, lo egiteko ere. Hain nengoen nekatuta segituan lo hartu nuela.

Une hartan bertan argazkilari bat han balego, argazki ederra aterako zuen; gu biok besarkatzen eta atzean, gau ilunean, suak Gernika argizatzen

Ez dakit zer ordutan, gau-erdian, zer edo zer esnatu egin ninduen. Norbait nire izena errepikatzen ari zen. Atarira jo eta nire ama ikusi nuen. Bateri eta besteari galdetuz jakin zuen han nintzela. Inoiz emaniko besarkada handiena eman nion. Dudarik gabe gainera. Une

hartan bertan argazkilari bat han balego, argazki ederra aterako zuen; gu biok besarkatzen eta atzean, gau ilunean, suak Gernika argizatzen".

Ama-semeak ezin izan zuten etxera itzuli, bonbardaketaren ondorioz San Roke kalean zuten etxea

Ludger Mees

Historialaria

“Oso bizirik mantendu behar dugu Gernikan gertatu zena”

Nahiz eta Alemanian jaio (Essen, 1957), urteak daramatza Euskal Herrian. Euskaldun-alemaniarra, Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU) Historia Garaikideko irakaslea izateaz gain, Euskara errektoreordea da. "Paperez inguratuta nago" esanaz hartu gaitu Leioako campuseko bulegoan.

Urte batzuk igaro dira Euskal Herrira lehen aldiz etorri zinenetik.

Bai, ondo gogoan dut. Oker ez banao 1973an izan zen. Franco bizi zen eta lau anai-arrebok, ni zaharrena, gurasoekin uda pasatzera Gernikara etorri ginen. Nire aitak Alemanian espainiar etorkinekin lan egiten zuen, eta Ramon Alberdi izeneko apaiz bizkaitar baten laguna zen. Berak animatuta etorri ginen Euskal Herrira. Ordura arte Belgikara joaten ginen oporretara eta anai-arrebok nahiko aspertuta gaudenez presio egiten genien gurasoei beste lekuren batera joateko.

Eta uda hartan, Gernikan azaldu zineten.

Ramon Alberdik, Gernikan egongo ez ziren lagun batzuen etxea alokatu eta bertan hartu genuen ostatu. Horrez gain, aitaren lagun apaizak, kontaktu batzuk egin zituen gernikar batzuekin gurekin harremanetan jartzeko.

Hamasei urte izan arren kontziente nintzen 1937an Gernikan zer gertatu zen. Ziurrenik, gainera, atzerritar bakarrak izango ginen herrian. Hasieran 'nola hartuko ote gaituzte?' pentsatu nuen. Urte batzuk lehenago gertatutakoaren berri nekiela eta ez nintzela zuritzen aritzen baizik eta nire gain hartzen nuela 'erantzukizun kolektiboa', eta frankismoa gaitzesten nuela jendeak ikusi orduko, segituan ireki zizkidaten ateak. Lagun handiak, egun ere mantentzen ditudanak, egin nituen.

Beraz, uda berezia izan zen oso.

Bai, erabat. Urtebete lehenago Santanderren igaro genituen oporrak baina han ez genuen ia inor ezagutu. Baina



Gernikako lehen uda, hurrengo urtean errepikatu baikenuen, oso izan zen berezia.

Gogoan dut bigarren urteko anekdota bat atzo gertatu izan balitz bezala. Abuztuan, herriko festetan, kontzertu bat antolatu zuten plazan. Halako batean pertsona bat gitarra batekin euskaraz kantatzen hasi zen. Baita jendea txaloka ere. Ikurrinak ere aireratu zituzten. Handik lasterrera Guardia Zibila azaldu zen kolpeka, ke-poteak botatzen, jendea sakabanatu eta panikoa sortzen. Nik ez nuen ezer ere ulertzen.

Nire aita kazetaria zen eta jakin-mina zuenez Guardia Zibilak herria hartu zutenean, kalera jaitsi zen. Ama, ordea,

apurtuta baitzegoen. "Ia Gernika guztia bezala. Zutik iraun zuten barrak fabrikak izan ziren. Eta harri-garria da, helburu militarra izan behar zuten lantegiak, bat baino gehiagotan arma eta bonbak egiten baitziren, zutik geratu ziren. Bitxia ezta?"

Senitartekoak bizirik

Luis eta bere ama, 'etxerako' bidean, gainontzeko lau anai-arrebekin elkartu eta lagun ertzain bati esker Bilbora heltzea lortu zuten. "Gernikan, amak, bere izen bereko, El-bira, altzari-denda izan zuenez,



seme-alabokin beldurrak jota, etxean. Aita Guardia Zibilengana joan eta batekin hitz egiten hasi zen. Halako batean Guardia Zibila eta aita pisuan azaldu ziren. Gizon hura, polizia egin aurretik Alemanian lanean aritua zenez, alemanez zekien eta aitak elkarriketatu egin zuen. Konturatu ginen egoera sozialaz ezer gutxi zekiela eta aginduak betetzen zituela soilik: berarentzat kalean protesta egiten zuten guztiak arerioak ziren.

Alemanian unibertitateko ikasketak amaitzean, herriz ere itzuli ziren Euskal Herrira.

Nik gaztelania Gernikako kaleetan ikasi nuen. Ordurako latina ikasten aritua nintzen eta frantsesez ere moldatzen nintzen. Beraz, nire kabuz ikasi nuen. Euskarazko lehen hitzak ere Gernikan ikasi nituen noski. Adibidez, Mikel Laboaren "Gernika" kantaren letra itzultzeko eskatu nien lagunei. Ara-

zo txiki batzuk izan zituzten, kanta euskara batuan idatzia baitzegoen eta beraiek bizkaitarrez hitz egiten baitzuten.

Han piztu zitzaidan Euskal Herriaren inguruan ikertzeko grina: abertzaletasuna... Historia ikasten hasi orduko, Europako nazionalismoen inguruan interes handia zuen katedradun batekin topo egin eta Euskal Herriko kasuan espezializatzeko animatu ninduen.

Alemaniarrek bonbardatu zuten Gernika. Nola definituko zenuke Condor Legioa?

Alemaniano ejertzitoaren elitezko talde bat, ekintza berezi eta apartekoak egiteko sortua. Bertako partaideak trebakuntza handikoak ziren; Condor Legioan ez zen edozein sartzen. Alemaniano ejertzitoak orduan oso makineria modernoak zuen eta Gerra Zibila saio-banku bezala erabili zuten, bai estrategia garatzeko, bai teknologia probatzeko...



Ez da ahaztu behar Gernika bonbardatu eta bi urtetara Bigarren Mundu Gerra hasi zela.

Alemaniarrentzat Gernika bonbardaketa gainetik kendu ezinezko zama al da?

Alde batetik, uste dut, behin ere gaindituko ez den gertaera bat dela. Eta gainditu beharko ez genukeena gainera! Azalduko dut zergatik. Gainditzeak esan nahi baldin badu, badakigula zer

gertatu zen eta Gernikan gertatutakoa gure gain hartzen dugula aitortzea eta nolabait, erantzukizun kolektiboa daukagula, zentzu horretan gainditutzat emango nuke.

Baina, beste zentzu batean, hau da, oroimen hori bizirik mantendu behar dugula eta batez ere, belaunaldi berriei begira, behin eta berriz, gertaturikoa gogorarazi behar dugula, zentzu horretan, ezin dugu inoiz gainditu. Oso bizirik mantendu behar dugu Gernikan gertatu zena. Ezin dugu ahantzi.

Durango, Gernika, Hiroshima, Nagasaki... Baina hain ezaguna ez den Dresde-k (Alemania) ere berea pairatu zuen.

Bigarren Mundu Gerra amaieran izan zen bonbardaketa, biktima kopuruari dagokionean oso handia eta krudela izan zen: 35-40.000 hildako eragin zituela esaten da. Jakina da ingelesek

egin zuten bonbardaketaren helburua populazio zibilari izua eragitea izan zela. Ez zen helburu militar jakin batekin egin.

Dresdekoa gerra krimena izan zen du-darik gabe; biztanleriaren aurkako eraso izan baitzen. Baina, hildakoak go-goan, oso kontuan izan behar dugu nork hasi zuen gerra eta nor izan zen erruduna. Argi eta garbi, Hitlerren Alemania. Perspektiba hori ez dugu inoiz ahaztu. ■

saltzaile baten etxean egun batzuk eman genituen. Aitarekin egunetara elkartu zen gurekin Bilbon”.

Baina Iriondotarren joan-etorriak ez ziren han amaitu. Ostean, Santanderrera joan ziren. Handik, itsasontziz Bordelera. Eta Frantzia bizpahiru hilabete eman ondoren, Bilbora itzuli zinen, han baitzeuden aita, eta gerora Athleticeen jokatu zuen Rafa anaia ere. “Gero aita ere hil zitzaigun eta sozialista zenez, bada ez bada ez zen berriro Gernikara itzuli. Nik, bestalde, soldaduskara joan behar izan nuen: hiru urte eman nituen Gasteizen”.

Lusek ez du inolako gorrotorik gordetzen. “Lagun alemaniarak ere badituzte” eransten du. “Gogoan dut Gernikako Astra ar-

Nazionalak herrian sartu zirenean kuartela etxe ondoan jarri zuten eta “Gernika gorriek erre dute” errepikatzen zuten

ma enpresara, urtebeterako gazte alemaniar bat lanera nola etorri zen. Beldurtu samar heldu bazen ere ez zuen inolako arazorik izan. Segituen gure koadrilako kide egin genuen. Ondoren oporretan etortzen jarraitu zuen eta bere seme bat Gernikako neska batekin ezkondu dago”.

Azokatik arineketan

Josefina Odriozola, bonbardaketa-ko lehen bonbek azokan bertan topatu zuten. “Amarekin nengoen. Egia esan ez zebilen jende gutxi. Gernika herritik gertu zegoen Iparragirre Goikoa baserritik ama eta biok azokara jaitsi ginen barazkiekin. Hau da, tomateak, porruak, arrautzak... Ganadua ere izaten zen. Hegazkinak azaldu orduko etxea aldera ihesi joan ginen ahalik eta azkarren. Hasieran hiru azaldu ziren; gero, atzetik, beste hiru... Beste hegazkin txikiagoek, metralatu egiten zuten”.

Gernikarraren etxean, sei anai-arreba bizi ziren. “Zorte handia izan genuen denak onik atera baikin; baina lagun asko galdu nituen” dio Josefinak. “Gernika sutan: on-

Maiteder Elosegi

Joseba Elosegiren alaba

“Gertaera beldurgarri baten lekuko zuzena izan zen aita”



Gernikako bonbardaketaren argazkiak historikoak bihurtu dira jada. Condor Legioaren erasoak Gernikan harrapatu zuen Joseba Elosegi eta nazioarteak han zer gertatu zen jakinarazteko argazkiak atera zituen.

Zure aitak Gernikako bonbardaketa puri-purian bizi izan zuen.

Aita, oker ez banago, bonbardaketa egunean Gernikan zegoen gudarien agintari handiena zen. Jakina den bezala merkatu eguna izanik jende asko zebilen salerosten. Halako batean Condor Legioa azaldu eta bonbardatzeari ekin zioten. Eguna ere ez zuten hola edo hala aukeratu, ez. Jakina da ikaragarritzko sarraskia eragin zutela. Jendea noraezean izututa korrika ibili zen leku seguru baten bila.

Erasoaren unean aita eta bere batailoia ez zeuden herrian bertan, ingurumarian baizik. Eta eraso hasi orduko laguntzera hurbildu ziren. Pertsona eta animali hil bat baino gehiago ikusi zituzten gudariak eta aitak. Era berean, bonbardaketa amaitzean txikizio hura lazarria iruditu zitzaionez eta eraso haizeak eraman ez zezan, argazkiak atera zituen aitak.

do gogoan dut. Gero, nazionalak herrian sartu zirenean kuartela etxe ondoan jarri zuten eta 'Gernika gorriek erre dute' errepikatzen zuten. Nire ahizpa zaharrenak 'gorriek ez dute hegazkinik izan, beraz, nola erreko zuten ba?' erantzuten zien".

Aita, Josefinari, bost urte zituela hil zitzaion. Zorionez baserrian beti izan zuten zer edo zer jateko. Ez ziren gutxi izan premiaren premiaz Josefinaren baserrira janariseske hurbildu zirenak. "Amak taloak prestatzen zituen eta bonbardaketa aurretik ihesian etorritako gipuzkoar bat baino gehiagok jan izan zituen gure etxean. Eta bat baino gehiagok esker onez txanpon bat edo beste uzten zuten. Urteetara talo baserrira jatera etorritako bat joan zitzaigun bisitan".

Hiltzeko zorian egon zen.

Bai, baina ez zion horri inoiz garrantzi berezirik eman. Gernikako bonbardaketaren triskantzaren lekuko izan zenez, nazioarteari gertaturikoa jakinarazteko ahalegin berezia egin zuten aitag. Neska-mutikotan, anai-arrebok, gerra garaiko gertaerak normaltasun eta askatasun osoz entzun eta eztabaidatu izan ditugu etxean.

Halere, sendi bat baino gehiagotan gerra garaiko gertaerak tabu izan dira.

Ama, Maite Mendizabal, aita baino bederatzita urte gazteagoa zen. Berak ere gerra gertutik ezagutu zuen. Oso pertsona jantzia zenez, gerra garaiko gertaerak une oro mahairatzen zituen. Berak ere gorriak eta bi ikusi baitzituen Donostian: gosea, errazio-namendu-liburuxka...

Halere, egia da ondorengo urtetan etxe bat baino gehiagotan sufrimendua ezkutatu nahi izan zela. Gure etxean, inolaz ere ez.

Aitak, Gernikan ateratako argazkiei begirune berezia al zien?

Bai eta Gernikan erabili zuen argazki-kamera gordeta daukagu. Berak ere altxor baten moduan ezkutatu zuen. Eta atera zituen argazkiak bon-

Bonbardaketa gogorra izan zen baina baita 'ondorengo bihar-ramunak' ere. "Gabezi handia sortu zen" eransten du Josefinak. "Ama, alargundu zenez geroztik asko sufritu zuen: sei seme-alaba hazi eta hezi behar izan baitzitu-ten berak bakar-bakarrik. Anaia bakarrari, berriz, ni baino bi urte zaharragoa, Gasteizera suertatu

zitzaion soldaduskara joatea. 'Hara heltzean militar-buruak harriduraz galdetu zion. 'Baina zer egiten duzu hemen? Ama alargun baten seme bakarra zara hemen soldaduska egiten ari dena'. Anaia lau urte igaro zituen soldadu. Ez ditut ez bonbardaketa eta ezta anaiari gertatu zitzaiona ahazten. Ezin dut".



Joseba Elozegi Gernika bonbardatu ondoren argazkiak ateratzen

bardaketa osteko txikizioa argi erakusten dute. Aita asko amorrarazten zen Gernikako bonbardaketaren aurretza kolokan jartzen zenean.

Hau da 'gorriek edo abertzaleek Gernika erre dute' adierazpenarekin...

...asko berotzen zen. Izugarri! Condor Legioak Gernika bonbardatu izana kolokan jartzen zuen historialariren baten adierazpenak entzun orduko, asko haserretzen zen!

70 urteren buruan zer esanahi du Gernikako bonbardaketak zuretzat.

Bonbardaketak sentipen handia eragiten dit. Bonbardaketaren berri izan genezan, aitak adere ederra erakutsi zuen argazkiak ateratzea bururatu zitzaionean. Gertaera beldurgarri baten lekuko zuzena izan zen aita. Gurasoak, bestalde, Gernikako sarraskiaren

berri izan genezan azaltzen ahalegin-du ziren beti. Gure belaunaldiarentzat ez baina nire seme-alabenarentzat nahiko gertaera urrun eta historikoa da bonbardaketa. Caudilloaz ere ezer gutxi dakite. Guk, anai-arrebok, gerra eta gerraosteko gertaeren inguruan normaltasun osoz hitz egin izan dugu. Gurasoen gerraostea ere ez zen batere erraza izan. Euskal Herrian, Parisen eta Marokkon bizi izan baitziren. Malleta beti prest eta atzeko atetik irteteko irudia ez du oraindik ahanzi.

Gurasoak ezkondu orduko Parisera joan ziren bizitzera. Hiru urte inguru igaro zituzten Frantziako hiriburuan. Handik Tangerrera. Han hamahiru urte eman zituzten. Nire arreba gazteena, Idoia, adibidez, han jaio zen. Azkenik, 1963an, itzuli ziren behin betirako Euskal Herria, Donostiara.

1857an sortu zen Hollywood herria. Hollywoodeko lehen zine-estudioak 1911n jarri zituzten bertan. Hogeita hamarreko hamarkadaren amaierarako, beraz, itzeleko dekoratuak erakitzen zituzten han. Eta horixe da dekoratu bat: aurretik etxe bat osorik, harrizkoa balliz bezala, kartoizkoa den arren, atzean gelek, logelek eta sukaldeek egon behariko luketen lekuan hutsunea daukana. Eta horixe bera zen Gernika hogeita hamarreko hamarkadaren amaieran: dekoratu larri bat, politikari batzuek erakitakoa, hegazkinen bitartez, bonbez bitartez, diruaren bitartez... Tribuko indiar euskaldunen gorpuak utzi zituzten sakabanatuta Gernikan; zalditeriaren zazpigarren sailak hildako indiar euskaldunak izan ziren, horko argazkian agertzen direnen senitartekoak seguruenik, Gernikako peikulako estrak. (Unai Elorriaga, idazlea).




Ebaki, zail, txiki...
dena hondakina
beroz urtu baitzuen
burdinak burdina
bihotzei luzatuaz
destino berdina.
Itsukeriak beti
emaitza jakina,
bihurtzen duelako
persona makina.


Gerririkoa ez da
noski salbuespen,
zail baita gorrotoa
bere kabuz hezten.
Orain ere ari da
gorrituaz belzten;
hasterena birrinduz
bera babesten,
oinazeak luzatuz
bizirik tolesten

Bai argazki tristea,
argazki goibela
batzuen bozkario
besteen eskela,
islaturaz batzuen
izate krudela;
esango nuke urte
asko dituela
ez baneki gaur ere
gertatuko dela!

Inaki Murua
(bertsolaria)

Argazkiak 1937ko Gernikako bonbardaketaren ondorioak jasotzen ditu, Bizkaiko herri hartan gertatu zenaren oroitzapenerako. Gaur egun, sarraski hura munduan zehar diren hainbat eta hainbat "Gernika"tan ikus dezakegu. Ahaztu behar ez dena gogoratu beharra dugu, biolentziak ondorio ikusgarri eta ikusezinak baititu. Gogoratu beharra dugu gizon eta emakumeen oroimen kolektiboaren bidez bakearen pedagogia egiteko. (**Maria Oianguren, Gernika Gogoratu**)





Hanka bikoan eboluzioa irakur daiteke hitzeko garatu dugun gaitasunaren ikuspegitik. Labanatik eztanda nuklearera pasa gara. Aurrerapen teknologikoek distantziara hitzeko gaitasuna eman digute. Hurkoa, funtsean, aurregirik gabeko kategoria abstraktu bihurtu dugu. Eliminatzen errazagoa. Seguruenera, goialde haletarik ez ziren ikusten noibanako apurtiak, ume eta nagusien sufrimendua. Ez martxoaren 31n Durangon, ez egun batzuk geroago Gernikan. Handik goitik, hegazkinek sabela libratzen zuten goialde haletarik, euskal herritarrak deus ez ziren. Urrun batzeuden. Kulparen edo ardura moral indibidualaren eragin-eremutik kanpo. Errukitzeko gaitasunetik oso urrun, bhotz taupadek eragiteko ahalmen oro galdu duten territorio ezin hotzagoan. Aro modernoak badu bere merituia, aitortu behar zait hori: sekula hain gutxi ez diote hain denbora motzean hainbeste min sortu hainbesteri. (Joseba Azkaraga Etxepibel, Irakaslea)